


TXALUPA


ELGOIBARKO
IKASTOLAKO ALDIZKARIA



2. haroa AZAROK

TEXTALUPA

ESTABROKO
IKASTOLAKO AIZKARIA



MAKINEN
SINERGIEN

TXALUPA honetan aste batzuk ba dituen notizia
bat, itsas haizeak ekarria, sartzen da.
Sartzen da, hala ere, zoritxarrez nahiz ohore
handiz, izan ere, barkagaitza izango litzaiguke
Donostiako irakasle, lankide, helburukide, bur-
kide baten heriotze samingarria aipatu gabe
utzik bagenu.

GOTZON ALEMAN, Donostiako Santo Tomas Lizeoko ir-
kaslea hil zaigu.

Goiz batez bizitzaren eskutik ihes egin zuen.
Gotzonez, beharbada, berak nahiko zituen baino
hitz eder eta laudagarriagorik esan da, eta ez
gara gu orain berdin egiten hasiko.

Baina maisu ondoen lauda dezaketenak beren ikasleak
izaten dira eta guk azken Z.Argiatik hartuta, bereak
izandako ikasle batzuen poema bat dakargu.

Agur, GOTZON

Oraingoz, behean segitzen dugu

zure
lana
jarraituz.

GOTZON ALEMANI

GOTZON
ezin eta nahi, eskuetan lurra hartu,
hodeiak urez beterik dauden egun honetan
zure gorputza ikusi dut, lau gizonak eramanez,
horri baten antzo
Baina ez ditut
zure aurpegiaren begi sakonak ikusi,
ez eta zure irrifarra,
non zaude? Nola?
agian zuk hain maitiak zenituen hodei artean
edo itsasoan urarekin jostatzen.
Ez dakit non zauden baina nire bihotzak
esaten dit: nahiz eta hemen ez egon
edozein lekutan aurkituko zaitudala,
zure begiak ez ikusi arren,
hemen,
non? Non zaude Gotzon?

(Sortzileen horrialdetik hartuta, Gotzonek
sortutako saila)

KAIKO!



aur, TXALUPA berriztatu honekin, aurretik urte batzuetan izan den eta azken boladan ikusi ez den lanari diogu berriro.

Hare berri honetan TXALUPAk aldakuntza bat behar duela uste dugu. Bere lehenengo itxurak eta hoi buruak balio zion egoera hartarako. Baina denbora berri honak TXALUPA berri bat eskatzen du. Goure, guztion arteko TXALUPA.

Animo, ea lortzen dugun bat dotorea!

Jarraitzen bagaituzue TXALUPA ale honetatik zehar bisita bat egingo dugu, sail bakoitzak zehatz zehatz azalduz.

Hala. Zatozte!

KAIKO, hau maisu-andereñoek inbadituko dugun horrialde bat izango da. Irakasleen bozemaile edo izan nahi luke.

Bortan maisu-andereñoen iritziak Ikastola, bere problema, eta abarri buruz aurki ditzakezue.

GUREKIN Hemendik aurrera dena ikasleek egingen dute. Eta hau ere bai. Ale bakoitzean pertsonaiaren baten elkarhizketa bat sartzen saiatuko dira. Pertsonaia edo pertsona talde bat, hots, zerbait interesgarri esateko edonorekin prest egongo da. Pertsonaia, beroni egingen zaizkion galderak eta guztiak ikasleek eramanen dute.

ERITZIAK, hitzak berak dioen bezala eritzi-
dea agertzeko lokurik egokiena hauke da, baina, ho-
ri bai, ipuin, adazlan, poema eta narrazkion bidez
agor dezatela.

"Informaziorik gabeko pertsona eritzi-
koa da" slogan oso ontzuna eta korrientea da gaurko
gizartean.

Uste dugu haurrak piskanaka piskanaka sagan
honen esannahiaz jabetzera heldu behar dutela. TXA
LUPATIK ere saiatuko gara honetan eta haurrak ohi
daitezzen (Ikastola, Elgoibar, Euskal Herria, mun-
dua), hau da, eure inguruko zerbait notiziaron la-
burpenak emango ditugu BERRIAK izeneko sailean.

KIROIAK. Argi eta garbi dago haur guztiek ki-
rolei garrantzia handia ematen diotela. TXALUPAN
ere izango da lokurik kirolarentzako.

ELASUTI... Izen honokin ikasteko herrialde bat
plazaratzen dugu. Hemen ere maisuek, zoritzarrez,
parto gohiago izan dezakogu.

Titulook dioen bezala, ikasgai sorta bat izan
nahi du. Ikasgaia hauen bidez, ahalik eta orrazon,
gure herriaren ezagupide emanen dugu, askorentzat
ezozaguna dena eta bide batez, beste askorentzat e-
rrepaso gisako bat izan daitekeena.

Geografia, Historia, Literatura, hizkuntza, e-
konomiaz,..... guztionetaz hitzegingo da hemen.

Bukaeran galdera sail batek norberaren kontro-
lerako balioko du.

Eta nola ez, bada, gurasoek ere ba dukete beren txokoa. Nonen arteko aldizkari bat egin nahi badugu zuen aitamek osotzen dute hirugarren elementa.

Kartaz, artikuluz, guttunen bidez adieraz ditzakete beren eritziak. Hona beraz, GURUSAREN ESKUTITZAK sailaren arazoia.

Beste batzuek, "pasatiempos", solasjaipausa, eta halako izenekin deitzen dute horrialdea guk PUPUSALDA izenez bataiatuko dugu. Bertan donetarik izanen da. Gurutzogramak, hitz nahastuak, asmakizunak, erruak, eta abarroz josita ikusiko duzue horrialde hau. Baina honen, beste sailetan bezala zuen eskuetan dago, zuek nahi duzue agertzeko.

HIZTEGI LABURRA. Hemen TXAUPAko horrialdetan zohar agertu izan diren hitz zail eta ezezagunen azalpena emango da. Geure hizkora aberastu nahirik, apika, orain hitz berri bat, gero beste bat ikasiz holako horrialdeak honetan lagungarriak izango zaizkigu.

Eskuarteak duzuen alor honi buruz zuen kritzia jakin nahi da eta hori dela eta hona INKESTA izeneko saila.

Eta azkenik AURKIBIDEA.

Erdorazko laburpen bat ere gaineratzen diogu. Honola euskara ikasi bidean dutenei lagundu nahi ge

nieke eta bide batez, bera garaian bota izan zon e
rrotea ateratzen dugu: Gau Eskolak. Ateak zabalik
dauzka, eta "Nahi izatea ahal izatea da" esaldiare
kin adoz bagaude, agian, laster, erdorazko laburpe
nak sobran daudela esaton digute eskutitzak jasoko
ditugu.

Ea, egia den !!!! Animo !!!!

Hona beraz zuen eta gure TXALUPA. DENON kola-
borazioa NAHI DUGU, TXALUPA portu segurura hel da-
din

AUPA !!!!!!!

IRAKASLEOK

(GUREKIN sail honetan, elkarrhizketa hau plazaratzen dugu lehenik, ikastolako garbitasuna inportantea delako eta are inportanteagoa emakume hauek jartzen duten ardura, nahiz eta guk askotan kasu handirik ez egin)

TXALUPAK.- Zenbat ordutan egiten duzue lan?

G.- Astero 18 ordu gutxi gora behora.

GARBITZAILEEK.- Astero 18 ordu gutxi gora behora.

TX.- Lan hau gustatzen al zaizue?

G.- Bai, ... Dena den beste inor ez zen prestatu lan hau egiteko

TX.- Nortzuk zikintzen dute gehien golan, txikiak ala haundiak?

G.- Zikindū, zikindu, batzuek zein bestek berdin samar zikintzen dute. Gertatzen dena zera da, txikiak ez dutela oraindik lurrera botatakoa jasotzeko ohiturarik eta handi batzuk behintzat, bai.

TX.- Zer uste duzue zikintzen dutela haurrok gutxiago? Ikastola ala etxea.


G.- Ikastolan gure ustez, etxea baino guttiago zaintzen dutelako.

TX.- Zuen ustez, zergatik zikintzen ditugu haurrok hainbeste ikastolako bazterrak?

G.- Ikastola ingurua zikina egoteak ere zerbait esan nahi duela uste dugu. Kanpoan zakarrontziak ipintzea estudiatu beharko litzateke.

TX.- Zer gehiago proposatuko zenukete gutxiago zikin dadin?

G.- Ba, lehen sandakoaz aparte, zuek gehiago zaindu dezazuela, inguruak eta ikastolarako bideak konpon daitezela...



TX.- Ikastola osoa garbitzea nekagarria gertatzen al zaizue?

G.- Bai, gela asko dago eta.

TX.- Amorrurik ematen al dizue bustitakoa zapaltzeak?

G.- Bai, batez ere, nahita eginda leku busti batetatik pasatzen zartenean ondotik pasatu beharrean, baina zapaltzeagatik egiten donean, ba plasta! zapaldu eta gustora gelditzen zartenean.

TX.- Besterik ez. Eskerrikasko.

G.- Eskerrikasko zuei, denoi hitzogiteko aukera hau eman diguzuelako.

(Aukera ona bai, eta beharrezkoa, bestalde,

hainbat piska bat baztutan izaten dituzten haserre

aldiak eta hobeto ulertzeko.

Eta guk ere, ea GUREA dugun ikastola hau hobeto

zaintzen dugun!

Hau irakurri ondoren, beharbada, orain arte

"garbitzaileak horretarako daude", "zergatik

pagatzen zaie", eta horrelakoak erantzuten zituzten

ikasleek ez dutela halakorik esango uste dugu,

Ikusten duzue lan hau ez dela txantxetako eta

ikatola erabiltzearekin bakarrik nahiko sikitzen

da, guk arduragaboak izanik gehiago zikindu gabe.)





1. Maila





cerveza



Aitor

9.25

BIGARREN MAILAKOAK KAZETARI.-

(MARI JULIREKIN HIZKETAN)

- KAZETARIEK.- Kaixo,... Zein da zure izena?
- MARI JULIK.- Nire izena Mari Juli Kõnde da.
- K.- Zenbat urte duzu?
- M.J.- 29 urte ditut.
- K.- Zenbat haur dira denora?
- M.J.- Ikasturte honetan 31 haur dira.
- K.- Eskak zenbat dira?
- M.J.- 19 neska dira
- K.- Eta mutilak orduan?... hamabi?!
- M.J.- Bai horixe, 12 mutil.
- K.- Ume hauk noiz hasi ziren ikastolan?
- M.J.- Ume hauk hiru urterekin hasi ziren ikastolan.
- K.- Zenbat urte dute haurrek?
- M.J.- Lau edo bost urte dituzte.
- K.- Haurrok ongá portatzen al dira?
- M.J.- Ba,.. nahiko ongá portatzen dira, bai....
- K.- Zarata asko egiten al dute ikastolan?
- M.J.- Bai, batzutan zarata asko egiten dute.
- K.- Agur.. Eskerrikasko
- M.J.- Nahi duzunnean etorri berriz ere... Agur.

(ZUZENDARIAREKIN HIZKETAN)

- KAZETARIEK.- Bigarren mailako haurrak gara eta elkarrikuste bat egitera gatozkizu. Galdera batzu prestatu ditugu
- ZUZENDARIAK.- Ea, bada,.... Bota!
- K.- Zer lan egiten duzu?

Z.- Klaseak ematen ditut eta ikastolako gauzak konpontzen saiatzen naiz.

K.- Noiz egoten zara bulegoan?

Z.- Arratsalde batzutan, klaserik ez dudanean.

K.- Eta noiz ikastolan?

Z.- Goizetan eta arratsaldeko ordu batzutan.

K.- Zein mailatan egoten zara?

Z.- Zortzigarren mailan egoten naiz.

K.- Gustora al zagoz lanean?

Z.- Maisu bezala bai, baina zuzendari bezala, ez.


K.- Nork aukeratu zintuon zuzendari?

Z.- Maisuek.

K.- Eskerrikasko,.. Agur.

Z.- Agur, bai.

(Bigarren mailako A eta B taldeetako haurrek ikastola batetan dauden 3 partaideetatik, hau da, guraso irakasle eta ikasleak, Mari Juli eta Andros zuzendariarekin egindako elkarrizkustea okarri dira hona.)




K U K U B E L

Kukubel, artzai txikia, neskato ona zen, eta oso polita gainera. Behin mendian, ardiak zaintzen zegoela, Maitagarri bat azaldu zitzaion, eta esan zion:


3gn - Kukubel neskato ona zeba, zer nahi duzu nik zuri ematea? Nik txilibitu sorgindu bat nahi dut. Bere soinua entzungo duten guztiak dantzan jarriko dituen txilibitu sorgina. Eta Maitagarriak urrezko txilibitu polit bat eman zion.

M Kukubel urrezko txilibitua jotzen Hasi zencan, one gauza harrigarria! mendiko pago, haritz, ardi, bildots eta loretxoak dantzan hasi ziren. Hura bai zela ikustekoa!!!

A Ixildu zen Kukubel, eta dantza amaitu zen. Eta herritar guztiak Kukubel ez zela sorgina autortu behar izan zuten.




Egun batetan enbor zahar bat nintzen. Zaharra nintzelako moztu egin ninduten. Makinan sartu eta gora behera ibili ninduten. Gero makina berri batetan sartu eta moztu egin zidaten. Gero txalupa polit batetan bihurtu nintzen.



ERLEA ETA TXINDURRIA

Bohin batean erle bat eta txindurri bat ziren. Udaberria zen, txindurria oso langileoa zen eta erlea oso alforra. Egun batetan erlea eta txindurria elkartu ziren eta honela galdetu zion erleak txindurriari: - Zortan ari zara hainbeste lan egiten?. Eta honela erantzun zion txindurriak erleari: - Negurako janaria biltzen ari naiz. Ba nik eguzkia hartzen dut trankil jarrita. Eta halako batetan negua heldu zen. Berriz erlea eta txindurria elkartu ziren, eta honela galdetu zion erleak txindurriari: - emango al didazu janari piska bat?. Eta honela erantzun zion txindurriak: ez, ez dizut janaririk emango eta alde hemendik. Hemen bukatzen da ipuin hau.



L A R R O S A

Agñ Maila

Ai larrosa polita
adarrez dago landaturik
eguzkiaren indarrez doa hasirik
Ai larrosa ederra!
lainoak curia botaz
eta berak zurrupatuz
lanean dago bizirik
Ai landare maitea!

E T X E A

Beti beti tuki baten
umeak zarataka
neska-mutilak burrukan
aitona-amonak irratias
aita telebista ikusten
ama janaria prestatzen
Ai nolako bizitza dudani!

GABEKO MOSOLOA


Gabeko mosoloa
benetan mosoloa
egunez lo
gauetz esna
Txorien sorgina
xaguen etsai
egunez zuloan sartu
gauetz danetik ibili
hala edo hola inork ez ikusi

KOKO MIKO

Koko Miko, Koko Miko
geldirik hor mutiko
Koko Miko, Koko Miko
kraskinolak kriskitin.


Koko Miko, Koko Miko,
sugea etorriko
Mixto zorrotzak xistu
zu nondik irentsiko.

Koko Miko, Koko Miko,
ama burua hausiko
suge txarra utziko du
hondatuta betiko.



TROSKI TXAKURRA

Nire aitaren lantegian txakur bat dago eta Troski izena du. Troskik bi kolore ditu eta grisa eta beltza dira. Gaur nire aitaren lantegira gizon bat eskaiolakin joan da eta Troskik eskaiolatik heldu eta eskaiola kendu dio. Troski oso gaiztoa da eta horregatik etxera ekarri dugu. Gaur Troski ikastolara eramán dut eta Troskik andereñoari betaurrekoak kendu dizkio. Troskiren kulpagatik etxera bialdu nau. Etxera ailegatu naizonean ama bazkariakin zetorren eta Troskik hankatik heldu eta lurrera bota du. Sorte txarroz alfombra zegoen eta erresbalatuta eskaileretatik behera jausi da. Hurrengo egunean ama eskaiolakin zegoen eta Troskik eskaiolatik heldu eta eskaiola kendu zion. Gero kalean Troski auto batek harrapatu zuen eta hemendik aurrera Troskik gaiztozeria guttiago egin zituen.



5gn Maila

GABEKO KATUA

Beltz beltza gaua bezala

teilatu gainean,

Nork ikusi!

Begi horiak



hilargia

bezala

Mutur zuria

lainoaek

bezala



Hilargia begira dago

Katua besartean hartu negirik

Katua - halako batez-

hilargiarengana joan da

beltz beltza

gaua

bezala

Lotara joan da

dena bakean da

katua
rekin

hilargia

beltz beltza gaua bezala.

JOXEMARI TXIKIA

Egun argitsu batez, gure Joxemari tabernatik mozkortubik
irten zen. Etxera heldu zenerako atea itxirik aurkitu zuen.

Ordurako mozkorraldia psatuxea zuenez, honela hasi zen:

- Andre, emazte, atea zabal ezaidazu! Zabaldu!.

Baina Joxemarik emazteak bazkaldu arte itxoin behar izan zuen.

Hurrengo omazteak esan zion: - Ordubaterako zator, bestela atea berriz ere hertsirik aurkituko duzu.

Biharamunean berriro mozkortuta ateratzen zaigu gure Joxemari. Etxera bidean elizatik pasatzean, ordubiak zirenez bi kanpai hots jotzen ditu ordulariak eta Joxemarik hola dio lasai askorik:

- Ja, ja, ja orloju hori bai dagocla mozkortuta, ordubata bi bider jo du... ja, ja, ja



ELIZAKO MISTERIOA

Igande batetan, elizarako ordua heldu zonean apaizak zarata bat entzun zuen korcan. Eta jendeak bildur handiz, elizatik hanka egi zuan.

Egun bat pasa eta bestea pasa, berdin jarraitzen zen, baina apaiza jendea lasaitzeaz saiatzen zen:

- Ez izan beldurrik, hau seguraski gu mezotara ez etortzeko izango da. Baina inor ez zen atrebitzen korora joaten zer arrai zen ikustora. Eta azkenik denboraldi batez eliza itxeta edukitzea erabaki zuten.

Baina ba al dakizue zer gertatzen zen? Bada, hau guztiau apaizak eta bere lagun gaizto batzuek antolatu zutela, eta zergatik, galdetuko duzue; ezta, bada... era honetara lasaiki elizako gauza eta bitxi baliotsuak lapur zitzaketen eta. Hau besterik ez zen gertatzen.

Oraindi itxita ziraueen egun batetan eliza ondotik pasatzen zen batek berriro entzun zituen zaratak, baina olkarhizketa, zurrumurru zaratak, eta zer gertatzen zen jakitea erabaki zuten. Elizako ateak apurtu, eta eskopetaz eta abarrez sartu ziren bertara. Koroan pasaleku subterraneo bat zegoela ohartu ziren, eta beronen bidea egiten hasi ziren., eta han non ikusten dituzten apaiza eta bere lagunak gauza guztiak nola eramaneatzen.

Herrian juizioa egin ondoren, handik bidaltzea erabaki zuten eta beste apaiz bat ekarri zuten.

6gn maila

EUSKAL HERRIA

Non dago gure Euskal Herria?

Non sartu dute gure Euskal Herria?

Herriak eta hiri handiak

manifestapenez daude josiak

Euskal Herria polita zen

baina bide zatar batetan sartu da

eta ezin da irten.

ODOLA BOTATZEN ZUEN ITURRIA

BA zen mendi tartean ezkutaturiko herri txiki bat. Herri hau erraldoi batek zuen monperatua. Erraldoia mendiko gaztelu dotore batetan bizi zen, eta gauero herrira jaitsi eta umeak bahitzen zituen.

Umeak bahitu ondoren, bere gaztelura eramaten zituen, eta han hil egiten zituen. Hilez gero gazteluera eramaten eta han odola ateratzen zien. Odol hau ostoldarik beheara zihoan eta estolada honek iturri batetako bidea eramaten zuen, iturritik odola jausten zelarik. Herri horretako jondea bildurturik bizi zen eta beren umeak atzerriara hidaltzen zituzten.

Egun batez herriko hiru mendizale basora joan ziren. Egarrri handia zute eta iturri baten bila zebiltzan... halako batetan ur doina entzun zuten. Ur doinuak iturria zegoen lekura iraino eramaten zituen. Bortara heldu zirenean besteak bezalako iturri bat ez zela ikusi zuten, odola isuritzen zuen bat baizik. Odol hura aztertzea erabaki zuten; plastikozko poltsa batzuz zirela medio odol muestrak hartu eta herrira jaitsi ziren.

Odola aztertzeko herriko sendagilearengana joan ziren. Honek aztertu ondoren desagerturiko ume zenbaiten odola zela esan zuen. Orduan, herriko gizon batzuek desagerturiko umeengana joateko bide bezala iturriari jarraitzea zela pentsatu zuten. Iturriaren bidea jarraituz erraldoiaren gazteluraino heldu ziren. Gaztelu barruan ezin zitezkoela sar ikusi zutenean ideia hau bururatu zitzaion. Hara:

-"Herriko gizon ttipi bat neska polit batez mazkaratuko zen.

Horrela erraldoia ikuste zuenean gaztelura eramango zuen beste umeak ziren lekura."

Gaua heldu zen eta erraldoia oro herriratu zen. Honek neska polita ikustean hartu eta esan zuen: - Ja! JA!, Ja!.. Neuregana beste ume bat heureganatu du. Ja, ja, ja, !! Honek bai izango duela odolik...

Erraldoia gazteluan sartu orduko, dena prest zegoen. Erraldoiak gazteluko leiho bat zabaldu zuenean, bere mendietan sua ikusi zuen.

Orduan korrika batetan atea zabaldu eta mendian gora hasi zen. Geroago neska politaz mazkaratutako gizona eta beste umeak gaztelutik irten ziren. Orduan, gazteluari su eman zioten. Erraldoiak hori ikustean menditik beheara bota zuen bere burua.

Handik aurrera iturritik ez zen odolik isurtzen ur garde eta freskoa baizik.

Eta hala bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Elgoibarko plazan.....

NIRE AITONA GENERALA

- Ama, nola zuen izena zure aitonak?
- Joxe zen bere izena.
- Eta zer egiten zuen?
- Euskaldunen generala zen eta Frankoren aurka guda egin zuen.
- Herri honetan bizi al zen?
- Bai, San Pedro kalean dagoen etxe zahar hartan bizi zen.....

Jarraipena)

Bueno oarin ohera joan behar duzu.

-Jo! ez!

- Bai. Benga. Bihar aitonaren gauza gehiago kontatuko dizut.

Eta horrela Ainhoa ohera joan zen. Ezin zuen lorik egin. H
Halako batetan esan zuen: Haraxe joan behar dut!

Erropak jantzi, leihotik salto egin eta aitonaren etxera abi-
atu zen. Nola hala atea zabaldu eta barrura sartu zen. Etxea
oso handia zen eta baliozko hainbat gauza zegoen. Gela batetan
gizon gazte baten irudia zegoen horman zintzilikatua. Momentu
batetik bestera hitzegin behar zuela zirudien. Irudia ikutu
besterik ez zuen egin eta kuadroa alde batetara mugitu zen.
Eta han atzean zulo handi bat agertu zen. Linterna bat hartu
eta zuloan behera sartu zen. Oso ilun zegoen eta hotz handia
egiten zuen. Bildur piska bat ere ematen zuen zulo hark.....
Halako batetan gela handi batetar iritsi zen. Han, apal bat-
etan kutxatila bat zegoen. Zabaltzea intentatu zuen baina
baina ezin izan zuen. Hala ari zela ordulariaz gogoratu zen
eta beroni begiratu osan zuen berekasa:

- Etxera joan beharko dut, bestela ama konturatzen bada ihes
egin dudala jo egingo nau.

Horrela zuloan gora joan, irudia bere tokian jarri eta etxera
joan zen; isil isilik ohean sartu eta lo gelditu zen.

Hurrengo egunez, gosaldu ondoren burdindegi batetara
sartu zen kutxatila zabal ziezaioten. Zabaldu zutenean orda-
indu eta etxera itzuli zen barruan aurkitu zuen liburuxka
irakurtzera. Irakurtzen hasi zen eta aitonaren diaricoa zela
konturatu zen. Azkenengo horriladean honela jartzten zuen:
" Gaurko gudua oso txarra izan da. Urbasara eramane... ",
gehiago ez zuen jartzten, ezin zitekeen irakur, ordi borratuta
zegoen.

Ainhoak denborarekin dena ahaztu zuen. Irakurri berri
zuela Urbasara joateko gogoa izan zuen baina azkenean etsi zuen.

Uztaila iritsi zen eta ikastolako txangoa Urbasara egitea
pentsatu zuten irakasleek:

- Ama, ba al dakizu nora goazen aurtengo txangoan?

- Nora ba?

- Urbasara barrankoa ikustera.

Ainhoa berriro bere aitonarengan pentsatzen hasi zen:

- Nola edo hala behera jaitsi behar dut zer dagoen ikustera....

Eguna heldu zen eta haur guztiak autobusez irten ziren
Urbasa alderantz. Goiza Lizarrako piszinetan iragan zuten.
Bazkaltzera Urbasa ingurura joan zirelarik. Barrankoa ikusi eta
piska bat haruntzaxoago bazkaltzen gelditu ziren. Bazkaltzen
ari zirela Ainhoak autobusetik soka hartu eta barrankora jaisten
hasi zen. Behera heldu zelarik eta metro batzuk besterik egin
ez zituenean, hura izan zen Ainhoaren harridura agure zahar
eta argal bat agertu zitzaionean:

- Nor zara zu?

- Ni Joxe Eta zu?

-Ni Ainhoa, zure biloba! Aitona!!... Eta Ainhoak aitonaren gain-
era salto egin zuen besarkatu gogoz. Elkarhizketa luze bat izan o
ondoren igo ziren, behintzat gora eta han jadanik denak Ainhoaren
bila hasiak ziren: - Ainhoa! Ainhoa!...

- Hemen nago, Begira hau nire aitona da eta hor behean aurkitu
dut

- Ene! Zure aitona!. Baina zergatik joan zara ezer esan gabe?
- Ba....
- Zure aitona aurkitu duzulako barkatzen dizut, baina gohiago
oz egin horrolakerik! Entzun!

Ilundu ondoren etxera joan zire. Ainhoaren gurasoek sorpresa
itzela izan zuten.

Oso pozik pasa zituzten aitonari golditzen zitzaizkion urteak.

TXISTE-MISTE

Joxe Astakiloarenak.-

Taxi bati deitu zion eta iritsi zenean esan zion:

- Herrira.

- Craintxo.

Horria bostehun metrotara zegoela esan zion taxistaki:

- Zenbat da herrira joatea?

- Hamalau peseta.

- Hainbeste? Beno, horretarako buelta eman eta baserrira
eraman nazazu. Honela ez dut ordainduko ezer, horria
oz naiz joan eta.....

(Ja, ja, ja, ja, ja, ja, ja, ja,)

- Dendarri! Arraultze dozenak zenbat balio du?

- Hogeitalau peseta.

- Hainbeste!? Eta arraultze oskolak zuretzat izanda,
zenbat gutxituko zenidake?

(Ja, ja, ja, ja, ja, ja, ja, ja,)

Zein astakiloago.-

Joxe etsamin interesgarri batzu egiten ari zion eta
etxera triste otorri zion:

- Zer gertatu zaik?

- Ez dut aprobatu etsaminik Brasil no dagoen ez dudalako

jakin.

- Ondo pasa zaik,.. hurrengoan hobeto gogoratuko duk gauzak non
uzten dituan.... (Ja, ja, ja, ja, ja, ja, ja, ja, ja...)